

Inurriek lurrikarak detektatzen dituzte

ALEMANIAKO Duisburg-Essen Unibertsitateko Gabriele Berberich biologoak Geozientzien Europako Batzordeen urteko biltzarrean aurkeztutako azterketaren arabera, inurri espezie batzuek lurrikaretatik babesteko neurriak hartzen dituzte.

Inurri gorriak aztertu zituen Berberich, eta Richter eskalan 2 edo faktore handiagoko lurrikarak detektatzen zituztela ikusi zuen.

Datuak neurtzeko eta biltzeko hainbat bideokamera kokatu zituen software bati lotuta, inurriak bizi ziren eremu batean. Denbora luzean hartutako irudietan oso garbi azaltzen da lurrikara gertatu aurretik inurriak ez direla euren babeslekura sartzen, hau da, kanpoan irauten dutela lurrikara igaro arte. Kanpoan denbora asko emanda harrapari batek jateko arrisku handiagoa dute, baina lurrazpiko babeslekuetara ez sartuz betiko lurperatuta geratzea saihesten dute.

Jokaera hori garbi ikusi dute ikerlariek; ez dago hain garbi, ordea, inurriek zer sistema erabiltzen duten lurrikarak detektatzeko. Ustez, hargailu batzuen bidez suma ditzakete airean gertatzen diren karbono dioxido kopuruaren eta eremu elektromagnetikoen aldaketak. ■



QUARTL-CC BY SA



Plastikozko “kontinentea” esploratzeko bidaia

KQED



BEHIN BAINO GEHIAGOTAN aipatu dugu Ozeano Barean plastikoz jositako itsas eremu zabala dagoela. Zientzialariak gero eta gehiago ari dira itsas eremu hori aztertzen, betetzen duen eremua ez baita txantxetako: 3,4 milioi kilometro koadro.

Azken espedizio zientifikoa Frantziako CNES erakundeak antolatu berri du, eta helburu nagusia sateliteetatik ateratako irudiak

interpretatzea izan da, hau da, hondakin kontzentrazio handi-
goak eta txikiagoak non dauden bereiztea, eta horiek sateliteeta-
ko irudietan nola irudikatzen diren ikastea. Horrela jakingo
baita, adibidez, plastikozko itsas eremu hori zabaltzen ari den ala
ez, eta bertan dagoenetik zer den planktona eta zer plastiko. ■



Garaieraren eta hizkuntzen soinuaren arteko harremana

PLoS ONE aldizkarian argitaratu emandako artikulua baten arabera, geografiak –garaierak, zehazki– baldintzatu dezake hizkuntza batek zer soinu mota edukiko duen. Munduan hitz egiten diren 600 hizkuntza baino gehiago aztertu dituzte, eta bereziki kontsonanteen ahoskeran nabaritzen dira desberdintasunak.

ttiki.com/51924
(Gaztelaniaz)

Zubi-hizkuntzak baliatu hiztegiak sortzeko

Ia hizkuntza guztiek dute hiztegi elebidunen bat hizkuntza “handiren” batekin (normalean, ingelesa). Eta horrelako bi hiztegi baliatu ditzakegu, hizkuntza “handi” hori zubi moduan hartuta, bi hizkuntza txikiren arteko hiztegi bat eraikitzeko. Hori xe egiten ari dira Elhuyarren.

ttiki.com/51925
(Euskaraz)

2050ean 9.600 milioi pertsona biziko dira munduan NB Eren arabera

Indian Txinan baino jende gehiago biziko da (1.450 milioi biztanle), Afrikak egungo populazioa bikoiztuko du (2.400 milioi), eta 60 urtetik gorakoen populazioa laukoiztu egingo da egungoarekin alderatuta (2.000 milioi pertsona).

ttiki.com/51926
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16